

Pastorala: estilo azterketa batetarako

JON KORTAZAR

Sarrera

Pastoralari buruz dagoen bibliografia errepasatuz gero* hutsarte nabaria azalduko zaigu azterketa literarioen arloan. Orain arte idatzi diren lan gehientsuenek ikuspegi orokorraren bidea hartu dute: Azterketa historikoak dira Herellenak, orokorrak, batez ere generoaren alde deskriptiboak kontutan hartzen dituztenak. Elkar lanean argitaratu diren hainbat lan ezagutzen ditugu, adibidez Harischelharren zuzendaritzapean argitaratuak. Patri Urkizuk ere honelako bide orokorrari jarraitu dio bere lanetan. Ezagutzen dugunen artean zehatzena da Oihartzabalena, halaz ere honek bide filologikoa jarraitu du, eta nik dakidanez, ez dio arlo literarioari toki zabalegirik eman. Literatura arloa hurbilagozik ikutu du Arene Garamendik, halaz ere honen bidea pastoralaren egiturari buruzkoa izan bada ere, generoaren etorbidea eta baliabide egituralak aztertu nahiko lukeenez, guk aukeratu dugun ikuspegira hurbiltzen da.

Ez du honek guztiak esan nahi haien lanek baliorik ez dutenik. Baliogarriak dira, noski, eta hainbaten idazten ari naizen honek baino balio gehiago izango dute, ziur asko. Adierazten dudana beste zerbait da, ordea, lan honetan aukeratzen den bidea oraindik saiatu gabea dela euskal alorrean. Baina era berean ikuspegiaren txikitasuna azpimarratu nahiko nuke.

Halaxe da, ez da pastoralen estiloari buruzko lanik, eta lan honen betebeharra baten baino gehiagotan azpimarratu izan da:

El enfoque estilístico no debe ser descartado. Es cierto que en las literaturas populares se tiende a obviar los estudios de estilo y a

privilegiar los planteamientos totalizadores o colectivos... La *estilística* permitiría resolver problemas de atribución de obras anónimas o de filiación insegura. Pero cabría ampliar incluso, el concepto de *estilo* hasta abarcar en él una determinada escuela o una tradición familiar (la de los Heguiaphal, por ejemplo). El análisis de las frecuencias lexicales, de preferencias por determinadas construcciones frásicas —facilitadas hoy por los medios informáticos— podría ser asimismo de gran utilidad para estas tareas de identificación (Garamendi, A., 1989,541-2).

Asko da egitekoa eta gutxi egina arlo honetan. Aipamenak hala ere, garbi uzten ditu zeintzuk liratekeen eginbeharrak. Ez gara gu eginbehar guztiak agortzen ibiliko, gure helburua ez baita hori. Askoz ere apalagoa eta umilagoa da gurea. Badu zerikusirik, aipamenean bertan esaten den "idazkera azterketa"rekin, eta ez dio helduko Garamendik aipatzen dituen beste litezkeenezko zereginiei: lexikoen porzentaia, e.a.

Ez da Garamendi anderea eginbeharraz eta egitekoaz daukagunari buruz mintzatu izan den bakarra. Beste batzuk ere aritu izan dira gai honen faltaz:

Teatro moeta hori zokoratua bezala egon baldin bada luzaz mende honetako euskal literatura estudioetan, badirudi azken urte hauetan gauzak aldatu direla. Folklore ikertzaileez gainera, literatura aztertzailleak ere prest daude orain, obra horien kontuan hartzeko (Oihartzabal, B., 1985, 49).

Bestalde, esan behar da, Beñat Oihartzabal bera izan dela era zuzen eta labor batez, Pastoralen estiloaren berri orokorra eman duena:

Nola itxura daiteke estilo hori? Zenbait ezaugarri eman daitezke: artifiziala, idorra, hantua, monotonoa (funtsean ongi begiraturik, teatroari berari ongi dagozkion adjetiboak).

Ezin uka bizkitartean estilo horrek grazia berezia duela gaur guretzat. Exotismo hori ez du hainbat euskalkiaren berezitasunak sortzen, baina gehiago erabili mintzairan agertzen den nahakestak: herrikoitasuna eta handi nahikeria, inozentzia eta harrokeria, ezaxolakeria eta pretentziona" (Oihartzabal, 1985, 83).

Hemen kokatuko ginatke, hemendik joango lirateke gure asmoak. Pastoralen gertatzen den estilo orokor baten berri eman nahi genuke, lan zehatzen azterketaren ondoren atara dezakegun aurpegi

orokorraren berri eman nahi genuke, Oihartzabalek sugerentzia mailan utzitakoa, borobildu eta zehaztu nahi genuke, adibideen hezur-mamiz gorpuztu eta haragitu.

Beste kontu bat da zertarako izango den hau. Egia da ez digula lan honek egileak aitzemaiteko balio izango: "Egia erran, harrigarria da nola pastoreak beren berezko estiloa sortu duten, guztiz berezia. Estiloa diot, zeren textuak beti anonimoak izateaz gain, den-denak molde berean eginak baitira. Oso zaila da pastoralak irakurtzean autore baten aurkitzea: iduriko luke denak idazle berak eginak dituela" (Oihartzabal, 1985, 86); egia da ez ditugula beteko A. Garamendik jartzen zituen helburu zabalak. Baina, "egizak zirt edo zart" zoro bat ere ez da gurea. Egia bada "eginez ahal duzuna, eginbide beharrena" dela, hurrengo orrialdeetan etorriko den azterketaren ondoren, pastoralak hobeki ezagutuko dugulako ustea dut. Azken batean, Eginetik beti zerbait, eta ez eginetik deus ez.

Gure helburuak

Lan hau, egitismo zabalago baten menpe aurkezten da. Jakina denez, Euskal Filologia Sailak Ikerketarako duen egitarauaren barnean, bada bat Pastoralari zuzendua. Ikerketa Sail horretan Pastoralaren inguruko hainbat lan egiten dira. Eginbehar batzuk infraegitura alorrekoak dira: Pastoralak bilatu, aurkitu, mikrofilmatu, katalogatu, ahalik eta baldintza onenetan gorde... Beste kasu batzutan, mikrofilmak transkribatu eta gordetzen ditugun pastoralen edizio kritikoak egiten saiatzen gara. Pastoralen edizio kritikoak prestatzeko egitismo bat eratu genuen orain urte batzuk. Ekintza horren fruitu izan dira *Edipa* (Martin Bohoteguy, 1793), *Clovis* (Ezezaguna, 1799), *Sant Alexis* (Heguiaphal, 1850) eta *Berterretx* (Etxahun Iruri, Patri Urkizuren arabera, 1956. urtean eszeneratua). Ikusten denez hiru pastoral klasikoak dira, eta laugarrena modernoa. Aukeraketa ez da bat-batekoa izan, baditu arrazoiak barnean. Batetik, lau gai desberdineko pastoralak dira: klasikoa, antzinekotasun profanoa, hagiografikoa, eta euskal historiakoa. Bestetik, hiru klasikoak dira, eta bat modernoa. Aro biren artean diren desberdintasunak ikusi nahian jo dugu bide horretatik.

Hauen azterketa estilistikoa egin dugu, gure lan hau testuen argitarapen kritikoaren eraskin gisa agertzen delako, egitismo zabalaren pean. Azterketa estilistikoa egin ondoren, pastoralaren idazkeraren irudi orokor bat ematen saiatu gara. A. Garamendik esaten zuenez,

estiloaren azterketaren ondoren eskola eta garai baten idazkeraren irudia emateko.

Hau izan da gure lehenengo xedea. Lanon azterketa egin eta ematen zituzten berdintasun eta zehaztasunen berri eman, baina ez da helburu bakarra izan.

"Generoak eratzen al du estiloa?" zen azpian genuen galdera. Pastoralak estilo orokor bat ote zuen zen lehendabizi erantzun nahi genuen itauna. Baiezkotan banago ere, edo hobe esan, aztertu ditugun lau pastoralen artean berdintasun orokor —oso orokor— bat nabaritzen dela baieztatu badezaket ere, beste galdera bat etorri zait haren orpotik; eta egon al da aldaketarik urteen buruan? Bigarren galdera honi erantzuna emateko, Junes Casenave eta Etxahun Iruri pastorailegien lanak aztertu nituen. Eta erantzuna baiezkoa da honetan ere. Jakina denez, aldiotan eztabaida sutsua sortu da pastoralaren ikertzaileen artean. Batzuentzat, pastorala XVIII. mendean sortzen da:

Más claramente: coincidimos con Etienne Decrept y Beñat Oihartzabal en señalar el siglo XVIII como término *a quo* del teatro suletino. No dudamos en afirmar que éste es el resultado de un compromiso entre las formas de representación del teatro rural religioso de los misterios y milagros, y contenidos dramáticos de la literatura de cordel o *colportage* francesa, especialmente de la famosa *Bibliothèque Bleu* de Troyes. Dicho de otro modo: el teatro suletino es la modalidad de transmisión que adopta en el ámbito vasco la literatura de *colportage*. En un medio campesino, vascófono en su totalidad y con un altísimo índice de analfabetismo, el libro de cordel —*livre bleu*— tuvo que ceder ante el teatro, un vehículo mucho más adecuado a las circunstancias. Las formas escénicas surgidas del teatro religioso se adaptaron a la nueva temática. Algo que los sedicentes "renovadores" del teatro suletino no han sabido entender: al rechazar el antiguo repertorio se destruía irremediablemente el género mismo (Garamendi, A.: 1989, 531-2).

Era berean mintzatu da Jon Juaristi:

El mayor problema del teatro suletino no es, sin embargo, su politización ni el consiguiente empobrecimiento de su repertorio. La demanda turística de espectáculos pintorescos y la adhesión de un público nacionalista podrán garantizar su supervivencia durante algunos años. Pero será una supervivencia artificial. El viejo

teatro campesino ha muerto, porque no cumple ya función alguna en el seno de una comunidad orgánica (Juaristi, 1987, 30)

Badira, era berean, aldakuntzak izan direla baieztatu ondoren, erizpide hau onartzen ez dutenak. "La pastorale du xxe siècle vit avec son siècle et c'est là, n'en doutons pas, un des facteurs de sa réussite et de sa perpétuation... Cette période [xx. mendea] est celle de la création: onze pastorales en moins de trente ans; il y a-t-il eu d'autres périodes aussi fécondes? Pas le xixe siècle assurément" (Haritschelhar, 1987, 41, 45).

C'est pour cela que forcément la pastorale évolue. L'auteur qui vit à une époque et en un lieu bien déterminés en est influencé et il ne peut pas faire abstraction de son environnement... Cependant des règles que la tradition nous a léguées existent; il faut les suivre. Elles sont propices à la pastorale, qui ne peut les renier sans se détruire elle-même (J. Casenave, 1987, 165-6).

Aldakuntzarik nabari zitekeenez ikusi nahi nuen. Egia esan aldrebes jokatu nuen. Hasiera baten, eskola orduak agindurik eta nahiz eta lan honetan agertu ez, Casenaveren lana aztertuz hasi nintzen. Ene eskoletan pastorala aztertzeko garaian, hizkuntza arazoak direla-eta, eta argitarazio arazoak ere bai, Casenave da testu azterketa orduan erabiltzen dudana pastoralegilea. Baina gure *corpusean Berterretx* nuenez, oraingoz Casenaveren lana ez ikututzea deliberatu nuen, gorago aipatu dudanez, lan hau beste lan baten menpe aurkitzen delako eta iruditzen zitzaidalako *Berterretx* eta pastoralaren gune eta bihotz arora atxikita diren beste hiru pastoralen arteko gonbarazioaz nahiko eta sobera nuela. Ezustea hartu dut, zeren, espero ez nuena gertatu baita: orokorrean, baliabide berdinak izan arren, pastoral klasiakoak gaurkoak baino aberatsagoak dira, estiloari begiraturaz gero, eta lan honen orrialdeetan zehar agertuko da zertan bai eta zertan ez.

Hirugarren arazo batek ere kezkatu nau. Ahozko literatura dira pastoralak, eta berez ezin genezake eurekin literatura kultua aztertzeko erabiltzen diren metodori erabili. Eta estilistika, batez ere, goi mailako literatura hori aztertzeko erabili ohi izan da. Halaz ere, gaur egun badira bien arteko —erdi-ahozkotasunaren estiloa deituko luke Juan Mari Lekuonak (1989)— diren generoak aztertzeko metodori. Ahozkotasun eta literaturaren arteko loturei buruz oso esanguratsuak

dira Ong (1988) eta Alice Warner-en (1977) lanak. Lotura horiei ere bere tokia eskaini nahi izan diet lantxo honetan.

Hiru helburu beraz: Pastoralen idazkeraren ezaugarri nagusien aipamenak, gaur eguneko eta XVIII eta XIX. mendeko pastoralen arteko azterketa konparatiboak, eta ahozketasun eta literaturaren artean sortzen diren loturei buruzko azterketek osatuko dituzte lan honen eginbehar eta xedeak.

Bibliografia

ELKAR LANEAN: *La Pastorale. Theatre populaire basque en Soule*. Lauburu. Bayonne, 1987. 195-198.

OIHARTZABAL, Beñat: *Zuberoako herri teatroa*. Haranburu. Donostia, 1985. 91-92.

Lehenengo atala:

Aho literatura eta idatzizko kultura

Datu jakina da Pastoralen atzean testu idatzi bat dagoela. Irakurri ditugu Arene Garamendiren iritzi zentzudunak, eta ikasi baita ere zein garrantzizkoak zen *Bibliothèque bleu* deituriko saila pastoral klasikoa-ren garapenerako. Testuaren aintzindaritasuna behin eta berriro azpimarratzen da, pastoralari buruzko ikerketetan:

Pastoralgile zaharrek erraten dute usu aintzin pherediketan, "istoria" bat errepresentatuko dutela. "Istoria" hori ez da sekula haiek berek asmatua, baina beti zenbait liburu herrikoitarik moldatua (erderazkotarik bistan dena). Oraintsu arte hola izan da beti (Beñat Ohiartzabal, 1985, 75).

D'autre part, il apparaît que les auteurs de pastorale n'ont rien changé à la manière de concevoir et d'écrire leurs pièces. Hérelle a bien montré que les pastoraux métaient en dialogues un texte de prose, une histoire dont ils suivaient la trame à la lettre. Quelques exemples récents nous prouveront que l'auteur du xx^e. siècle a agi de même (Jean Haritschelhar, 1987,41).

Beraz, nahiko garbi planteiatzen du Juan Mari Lekuonak zuhurki erdi-mailako aho-literaturaren eremuetan sartzan ari garela. Esan nahi da, aho-literaturaren mugak garbi ez dituen genero baten ingurutan ari garela. Pastoral egile bat ez da analfabetoa, idazkeraren legeak ezagutzen ditu, baina idazkera jakitea ez da jakintza neutrala. Walter J. Ong-ek erakutsi duen bezala, idazkeraren teknologia ezagutzeak subjektuaren pentsamendu munduaren aldaketa dakar bere aldetik.

Sin escritura, el pensamiento escolarizado no pensaría ni podría pensar como lo hace, no sólo cuando está ocupado en escribir, sino incluso normalmente cuando articula sus pensamientos de manera oral. Más que cualquier otra invención particular, la escritura ha transformado la condición humana (Walter J. Ong, 1987, 81).

Irakurtzen eta idazten dakitenek egiten dituzte pastoralak, beraz, neurri batean, aho-literatura eta literatura kultuaren artean dagoen zerbaitetan mugitzen dira. Jon Juaristik (d.g.), adibidez, literatura ez-tradizionaltzat jotzen du, edo garbiago inor urduritu gabe, tradizionalizaziorik ezagutzen ez duen generotzat. Esan nahi da, komunitate batean badirela pastoralak, pastorala komunitate horren tradizio da. Baina, pastorelegileek, nolabait esan, kasta berezi bat, eta erdi profesionala osatzen dute komunitate horretan. Beraz ez da *danona* pastoral bat egiteko ahalmena, eta gainera, pastoralak ez dira osorik memorizatzen. Letraren beharra daukate, hitz batetan esateko.

Begi luzez adierazi dute gaur egunean pastoralen inguruko ikerketa bultzatu duten ikerlari gazte biek, Arene Garamendik eta Beñat Oihartzabalek, erdi-mailako testu batekin ari ginela lan egiten:

Oker geundeke pastoralak, partikularzki pastoral zaharrak, teatro klasikoaren arabera sailkatu nahi bagenitu.

Tragedia-komedia oposaketak ez du balio pastoralen kasuan, nahiz beharbada gaurko pastoraletan bi gauzak ez diren lehen bezain nahastekatuak agertzen" (Beñat Oihartzabal, 1985, 73-4).

La literatura suletina pertenece en su mayor parte a lo que se ha dado en llamar subliteratura o paraliteratura o, menos peyorativamente, literaturas marginadas o marginalizadas. Ni los criterios valorativos ni los métodos aplicables a su estudio pueden ser los mismos que los usados con la literatura "cultura". Pero no por ello deben echarse en olvido (Arene Garamendi, 1989, 541)

Horregatik, lan honen beste atal batzuetan beste bide arruntago batzuk jarraituko baditugu ere, hasteko beharrezkoa zaigu ahozkotatzen eta idazkeraren arteko mugetan zer gertatzen den ongi ikustea.

1. Walter Ong-en ahozkotasuna eta idazkera

Ikertzaile ospetsu honen esanetan, pentsatzeko era desberdinak sortzen dituzte teknologia biok: ahozkotasunaren teknologia, eta

idazketaren teknologiak, eta beraz, espresa-mundu desberdinak dituzte. Idazketa zer den ez dakitenek molde jakin batzuetan, eta molde horiek desberdinak dira idazten dakitenentzat, hitz egiten dute, organizatzen dute bere pentsakera. Ahozkotasanak bere espresaera propioa du. Edo Walter J. Ongek esaten duen moduan, ahozkotasanak bere psikodinamika berezia du, psikearen higidura berea. Mnemotekniak adibidez, garrantzia hartzen du, eta gogoratzeke erabiltzen diren formulak toki zentrala dute edozein letragabekoaren (eta ez har mesedez, hitz hau zentzu oker batean, bakarrik adierazi nahi baita, egoera bat, letrarik gabeko egoera, hain zuzen) bizitzan. Zeren, Ong-ek adierazten duenez, gogoratzea, kontestu honetan, jakitea da, edo beste era batez, gogoratzen ez dena galduta dago betiko, ez da esistitzen, ez da. Oroimena da izaeraren mundua.

Gogoratze-prozesuan toki berezia hartzen dute erritmodun esaldiek, eta luze arituko gara honetaz ahapaldiaren azterketa egiten dugunean, baina ahozkotasanak baditu ezaugarri garbi eta argi batzuk. Eta atal honetan egingo duguna, Ong-ek deskribituriko ezaugarri horiek Pastoraletan agertzen diren ala ez aztertzea izango da.

2. Ahozkotasanaren gogo-higiduraren ezaugarriak

Ahozkotasanaren gogo-higidurak hitzaren jantzia hartu behar duenean, espresabideen posibilitate kontaezinetik batzuk aukeratzetik ditu, batzuk eta oso jakinak... gogoratze-prozesuak erretzen dituztenak, hain zuzen. Banan banan ikusten joango gara, alde aurretik jakinda, ahozkotasanak ez dituela formulazio konplexuegiak maite.

En una cultura oral, el análisis de algo en términos no mnemotécnicos, no normativos ni formulativos, aunque fuera posible, sería una pérdida de tiempo, pues tal pensamiento, una vez formulado, nunca podría recuperarse con eficacia alguna; pero sí sería posible hacerlo con ayuda de la escritura (Walter J. Ong, 1987, 42).

Hau ez da zuzen-zuzenean eta estu-estu, behin eta berriro gogoratzen dugunez, pastoralaren kasua, zeren honek idazkera ezagutzen baitu, eta beraz, formulazio konplexuak egiteko gai delako. Baina neurri baten, ahozkotasanaren menpe den neurrian, konplexutasunetik urrun ibiltzeko araua gordeko du. Azken batean, teatrogintzako araua baita gogoratzearena. Eta arrazoi honegatik ere, gogo-higidura gogoratzeke formuletan gorpuztu behar du Pastoralak.

Zeintzuk dira ba, gogo higidura haragitzeko erabilpenak, eta espresabideak?

1. *Menperatuak baino gogokoago ditu koordinatuak*

Joskeraren kontu bat da, azken batean, baina semantikoa ere bai. Har dezagun edozein pastoraletako edozein pasarte. Bat-batean konturatuko gara "eta" juntagailuak ikaragarritzko presentzia duela, dudarik gabe, gehien agertzen den juntagailua dugu ("eta" juntagailuaren supresioarekin batera).

Cuq creatu naiçu Jauna
merechi gabbe ezdeusetaric
eta kuruchen gaignen arra errossi
merechi gabetaric (Saint Alexis).

Honelako formulak ugariak dira Pastoraletan. Jakina denez, eta gure garaiko literaturan Bernardo Atxaga bezalako idazle batek asko erabiltzen du kopulatiboaren errepikazioa, horrek bizitasuna ematen diolako narrazioari, bizitasuna eta ahozkoaren antz handia. Zeren ahozkotasunean honi buruz gertatzen dena, arras erraz esplika baitaiteke. "Eta" juntagailuak, esan ohi da, ekintzen pilaketa hutsak, ekintzen jarraipen kronologikoak, hizkuntza "idatzian" menperatuek hartzen dituzten balioak erabiltzen ditu. "Eta" juntagailuak zabaltasun semantiko nahikoa hartzen du, konkrezio falta, eta kronologiaren jarraipenarekin batera, beste esanahia batzuk biltzen ditu, hala nola, kausalitatea:

Bijitaz jin niz egun
zirekin mintzatzer
Bai eta gaiure arteko
afere chuchentzera (Berterretx).

Aurreko esaldi hori, era matizatu batez eman dezakegu kausalak edo helburuzko esaldi bat erabiliz gero. Ez dugu adierazi nahi, noski, gaizki dagoenik, baizik eta garbi jarri behar dugun Pastoralan testu bat dela, baina bere testu izatean gordetzen ditu ahozkotasunaren ezaugarriak, eta "eta" juntagailuak hartzen duen semantika esparru zabala baita.

Zalantzarik ez dago, estilo marka hau erabiliz, pastoraletan zahar-tzaroaren eta exotismoaren kutsua ematen dutela.

2. *Hitzen ugariketaren aldeko*

Ahozko estilo batek erredundantziak maite ditu, esaldiak hitzen orde, nahiago du diskurtsu zabal eta lasaia, hizkera analitiko eta meharra baino:

Los elementos del pensamiento y de la expresión oral no tienden tanto a ser entidades simples, sino grupos de entidades, tales como términos, locuciones, u oraciones antitéticas, o epítetos. La tradición popular oral prefiere, no al soldado, sino al valiente soldado, no a la princesa, sino a la hermosa princesa; no al roble, sino al fuerte roble. De esta manera, la expresión oral lleva una carga de epítetos y otro bagage formulario que la alta escritura rechaza por pesada y tediosamente redundante, debido a su peso acumulativo (Walter J. Ong, 1987, 45)

Pastoraletan nabaritzen da jendearen tratamendurako egindako ahalegin berezi bat. Ez dago pertsonaiarik deitzeko aposizioa erabili gabe utziko duenik. Behin eta berriro agertzen zaizkigu "Sirak", edo "erregueak", eta hoiengandik inguruan erabilitako "kortesia" zentzu zuhur bat:

Prince noble houra... (Clovis).

Ene gaicho Margaitari (Berterretx).

Hounen begitarte ezta (Edipa).

Nour ote da mintçaçale
arrogant handy hory (Edipa).

Kortesiaren zentzuak formulazio zabalagoa du, eta lotuta dago "barkeske", "agurra", eta "baimen-eskatze" arlo semantikoekin, halaz ere hauek ez dute horrenbeste zerikusirik ahozko literaturarekin:

Jar zite arren ichtambat
Ez othoï egin faïzourik (Berterretx).

Othoy hel çakhizdate (Edipa).

Othoy çuq plazer baduçu
çoure cerbutchary eguiçu (Edipa).

Madama, eran eçadaçu
othoy plazer baduçu (Edipa).

Sira isseyaturen nuçu
çoury plazer eguitera (Clovis).

Eta agian, adibiderik garbiena, ez soilik kortesiarena, baizik eta hitz oparotasunarena *Saint Alexis* Pastoralean aurkitzen dugu:

Jauna cer berri eneganik
jakin nahi duçu
baldin plazer baduçu
galtha içadaçu (Saint Alexis).

Kortesi-formula konplexua badirudi ere, azken batean paralelismoaren jokoan oinarrituriko formula labur luzatua baino ez da. Ahozkotasunak oparotasunerako agertzen duen zaletasunerako adibiderik argienetarikoa. Egia da hemendik sorturiko sentimendua Walter J. Ongek aipatzen duena izan daitekela:

La alabanza ampulosa en la antigua tradición retórica de regustos orales da una impresión de falsa, pomposa y cómicamente presuntuosa (Walter J. Ong, 1987, 51).

Beste alde batetik, oparotasunerako joera horrek pastoralaren diskurtsu osoa mugatzen du, oso aurrerapenik gabeko diskurtsua eratzuz: Diskurtsu mota honi sail berezi bat eskainiko diogu lan honen laugarren atalean.

3. *Borrokaren toki aparta*

Ahozko kultura batek oso agerian uzten ditu gizakien alde agonistikoak, gizakiek ditugun borrokarako lehia. Era berean jokatzen du Pastoralak. Eta ez soilik edozein pastorek azken batean mundu biren arteko borroka agertzen duelako: onak gaiztoen aurka, kristauak türken aurka, eta ezta ere mundu biren arteko lotura bakarreko konfliktua delako, pastoralaren hizkuntza berak ere aurrez aurre dauden mundu biren arteko diskurtsua gogorra eta bortitza egiten duelako baino, edo horregatik baita ere, anaien arteko borroka (*Edipa*), etsaien arteko gatazka (*Berterretx*) gauzatzen da pastoralaren mamia. Gainera hemen erabiltzen den anaiarteko hizkuntza kortesiaz beterikoa den arren, askotan erabiltzen da hizkera bortitza pasarte irragarrietan ere, Satanez eta parte hartzen dutenean:

O thurmentu ieigarria
secula phaussariq gabia
abantçu ditaq aleracy
bougre hareq centia
Bere erresuma ororequy

behar diat galeracy
khorhitcian indar dudano
behar nitcicq jarraqy (Clovis).

zein pertsonaia arruntek hitz egiten dutenean:

Crima orotaco esclavouena
maleciousquy cometitu
eta neire bi anayaq
malerousquy traditu
Oguen gabe gal eracy
tradicionez hil eracy
bay eta hayen haurraq
houren behera egitxy
harri handi bedera
lepouetariq estecaturiq
ukhen ahal elecen
jalquiteco moyenic (Clovis).

“Odol zaletasun” hori nabaria da beste aho literaturen beste genero batzuetan ere. Nabarmen agertzen da baladetan, baina horrelakorik aurki genezake bai bertsogintzan (binakako saioak pelika bat dira), eta baita ere erromantze erlijiosoetan (Jesukristoren gurutzetzaeren ingurukoetan).

Agian, giroa, jokera estilistiko hau, pastoralegileek eta haien ikusleek bizi dituzten baldintza historiko gogor eta mingarrien (txirotasuna, gaixoa...) isladapena litzateke.

4. *Enpatia*

Ez dago dudarik aho-literaturaren barnean lotura bereziak sortzen direla idazle, ikusle, eta aktoreen artean. Publikoak identifikazio prozesuak izan behar ditu, eta horixe da hain zuzen ere Pastoralak lortu nahi duena, ikusleek kristautasunaren ontasunean sines dezaten nahi du. Eta hori identifikazio-prozesuaz lortzen da. Egia da, eta hemen berriro nabaritzen da idazkeraren indarra, banatua agertzen direla pastorealean *peredikak* eta pastoralaren ekintza bera, eta identifikazioarekin batera agertzen direla pastoralaren doktrina eta pastoralaren historia. Baina aurkako arrazoirik ere badago. Zeren mezuaren eragile ez baita izaten soilik *peredikaren* kantatzailea, aktoreek eurek ere askotan bidaltzen dute-eta mezu nagusia.

Bena borogaturen ducie
eia nour niçan ny,

theatre hountan çounbait
nahy nukhe ikhoussi (Edipa, 188).

Ahapaldi honetan fikziozko diskurtsua, diskurtsu erreferentziala bihurtu da, ez da aipatu fikziozko tokia (Tebas), baizik eta aktoreak bizi duen unea eta tokia (theatre). Ez da dudarik egilearen hitzetan, gogoan, fikzioa eta errealtatea nahastatu egin direla, enpatia bat lortu dela, fikziozko munduaren eta erreferentziazko munduen artean, ez da dudarik, publikoari, parte har dezan eginiko dei bat dela.

Bada beste argibideren bat *Edipa* pastoralean. Pheredika egilea ari zaigu mintzatzen eta, pastoralaren gaia azaltzen ari delarik, honela zuzentzen zaio ikuslegoari:

Hirour andere hayen pena
eniro asky representa
bena particularky ereguigna
ikhousiren ducie afligitia.

Ahapaldi hau esanguratsua da, lehenengo pertsonaren agerpena egin ondoren, ikuslegoaren aurrean jartzen delako erreginaren sufrikarioa. Hemen garbi baino garbiago nahastu dira errepresentazioaren maila eta errealtatearena.

Junes Casenave egileak, testu eta publikoaren artean diren lotu-
rei buruz mintzatzerakoan hurrengo hau adierazi zuen:

La pastorala est prés de la vie des gens de Soule, elle est, en même temps, la expression de leurs interrogations et des réponses qu'ils attendent... L'auteur qui vit à une époque et un lieu bien déterminés en est influencé et il ne peut pas faire abstraction de son environnement... Toute pastorale, en effet, est faite pour le public, pour l'émouvoir, le fair réagir. Il n'est pas possible à l'auteur d'oublier cette finalité (Junes Casenave, 1987, 165-6).

Esanak esan, pentsa dezakegu enpatia handiagoa gertatzen zela pastoral klasikoan gaurkoan baino, azken batean, hau gizon ilustratu-
tuen eskuetan dagoelako.

5. *Testua eta gaurkotasunaren arteko oreka*

Honela definitzen du Walter J. Ongek ezaugarri hau.

A diferencia de las sociedades con grafía, las orales pueden caracterizarse como homeostáticas, es decir, las sociedades orales

viven intensamente en un presente que guarda el equilibrio u homeóstasis desprendiéndose de los recuerdos que ya no tienen pertenencia actual (Walter J. Ong, 1987, 52).

Jakina denez, ahozko testuak (adierazpen-kontrajarpa erabiltea zilegi bazait) bizirik daude, aldakorrek dira, edo gehiago esanez, aldakortasunean dute bizitza. Ahozko testuak egitura zabalduak dira, errepikatzen direnean, edozein balada kantatzen denean, edozein txiste kontatzen denean zerbait gorde egiten da eta beste zerbait aldatu egiten da. Hitz teknikoekin esateko, makroegitura gordetzen den artean, mikroegitura aldatu egiten da. Narrazioaren bizkar hezura berdina izaten den artean, hitzak, formulak, aldakorrek gertatzen dira. Eta aldakorrek dira, testua eta bizitzaren artean lotura estua delako. Eman dezagun, balada batetan, "Brodutzen ari nintzen"en *ezpata* hitza erabili dela, baina suposa dezagun giro arruntagoetan zabaltzen dela balada, hau da *ezpatarik* erabiltzen ez duten gizarteetan, eta orduan aldatu egiten da hitza, eta "neska gazte galantak" bere burua hiltzeko *tijeratuak* erabiliko ditu, eta ez *ezpata*. Giroak bultzatua, zentzurik ez zuen hitza desagertzen da eta eguneroko bizitzan, balada hori gordetzen dutenen eguneroko bizitzan agertzen den tresna aipatzen da baladan. Tresnaren *funtzioa* ez da aldatu, baina tresna bera bai.

Hauxe dugu bada, oreka. Baina nola gerta liteke hori definizioan diogunean homeostasia letrarik gabeko gizarteetan gertatzen dela eta pastorala idatzita ematen denean? Nola defendatu pastorealean oreka dagoela idazten dakitenen, eta gaia irakurriz hartu dutenen artean genero denean?

Pastoralaren kasuan, oreka hori ez da gordetzen pastoral baten testuari lotzen bagatzaizkio. Esan da gainera, delako pastoral baten testuak oso tradizionalizazio eskasa izan duela. Honek esan nahi du *Edipa* ez zuela publikoak buruz ikasi eta bere etxeetan kantatu, ez zuela berea egin, ez zela aldakuntzen bizitza horretan sartu, idatziz mantendu zela, hibernatua, bere bizitza. Baina hala ere, pastoral jakin bat kontutan hartu beharrean, pastoral baten gaia hartuz gero, gure azterketako *Clovis* hartuz gero, konturatuko gara pastoral honen *gaiak*, pastoral honek, ezagutu zituela aldakiak, pastorelegileen artean bizitza bat ezagutu zuela ikusiko dugu, pastoralaren *gaia* aldaketetan bizi zela jakingo dugu.

*Clovis*en kasuan, oreka bat gertatu zela uler dezakegu *Clovis*en lehendabiziko aldakia XVI. mendekoa dugu, bigarrena, 1770. urtean

antzeztu zen, hirugarren bertsio bat ezagutu zen 1799. urtean eta 1858. urtean ezagutzen da azken aldakia. Garbi dago bost bertsioren artean aldakuntzak gertatu direla, *Clovis* pastorala aldian aldikoen begietarako taiutzen zela, aldakirik aldaki, bihotza gordez, jantzia aldatzen joan zela. Argi dago, pastorelek, tradizionalizaziorik izan ez arren, bere zirkuluen barnean homeostasi prozesua, garai bakoitzean garaikoen bizitzarekin oreka gordetzen zutela.

6. *Egoeraren, eta ez abstrakzioaren, garrantzia*

Ahozko komunikabidean hezi eta bizi den gizakiak ez du ongi ulertzen abstrakzioaren bidea, ez daki zer den abstrakzioa. Ahozko komunikabidean bizi denak hitza eta errealitatea lotuta ikusten ditu. Horregatik bere literatura, bere estiloa egoerak duen indarrarekin sortua agertuko zaigu. Ideien inguruan baino gehiago, bizi denaren inguruan jaulkiko ditu bere zeresan literarioak. Horrela, baladetan adibidez, metonimiaren tokia esanguratsu eta garrantzitsua da, bizi izandako esperientziak ematen diolako hitzari bere garrantzia. Baladetan beti agertzen da hitz zehatza ideia baten ordez. Adibidez, *Prantzie kortekoan*, semeak Juanitari sarten dion *puñala* ez da puñal soil bat, biolentzia eta gogorkeriaren sinbolo handia baino. Azala eta eguneroko tresnen bidez ematen zaio gorputza abstrakzioari.

Pastoraletan egia esan, falta ez badira ere, ez da maizegi erabiltzen metonimia, eta metonimiaren indar sujerentea. Pastoraletan beste era batez agertzen da esperientziaren indarra, hain zuzen ere, ekintzen deskripzioaren bidez, berbalitatea aktoreak egin behar duen ekintzetan agertzen da. Maizegi azaldu behar ez dena azaltzen dute, eta gehienetan haien hizkuntza zehatzari atxikiegia dela esan genezake. Izenaren metonimia baino gehiago, ekintzaren azalpen zehatza behin eta berriro eman beharra dagoela esan genezake:

Sira consola cite othoy
eta har eçaçu courage,
tristecia horiq oro
utcy behar dirade (*Edipa*).

Badirudi egilea bildur dela barnesentipenak ongi ez deskribitzen eta hortarako pilaketaren bidez ematen duela nahi duen sentzazio hori. Hitz batek nahikoa eskainiko ez balu bezala inguru-minguruan dabilkigu, zehaztu nahiean. Hala *Edipa* pastoraletan Layan trajediaren bihotza izango den ametsa kontatu nahiean dagoela, Socrasta eta Layaren arteko elkarrizketan, honen ezinegona adierazteko, "tris-

teçia", "malur", "dolore", "embaraçu", "Loxa(tu)", "arralaqueric" hitzak erabiltzen dira, Layak duen hori defini ezina balitz bezala.

Bestalde ez dira zail aurkitzen abstrakzio bidean diren esaldiak. Aho-komunikabidean bizi denak ezin omen ditu silogismoak ulertu. *Clovis* pastoralean, ordea, aurkituko ditugu silogismoaren antza duten esaldiak:

By escu escuing balutu ere
bata baquetceco behar luquiala
bena bat baiciq eztiacoç
batailletaceco behar diala (*Clovis*).

Gehienetan, hala ere, badirudi pastoralegileek abstrakzio mundu bat baino gehiago, beste hizkuntza erregistro batetatik harturiko irudimen-mundua eta irudiak erabiltzen dituztela. Adibidez erlijio-munduko irudikera.

Oh Jesus achouri eztia
othoy permety eçacu
justo bada ene galthoua
othoy ençun neçaçu (*Clovis*).

7. *Heroien papera*

Heroien behar izana nabaria da aho-kultura batetan. Eta honetan pastoralek, hagiografian oinarritzen direlarik, aho-kulturarako oinarri den bidea jarraitu baino ez dute egiten.

La memoria oral funciona eficazmente con los grandes personajes cuyas proezas sean gloriosas, memorables, y por lo común públicas. Así la estructura intelectual de su naturaleza engendra figuras de dimensiones extraordinarias, es decir, figuras heroicas; y no por razones románticas o reflexivamente didácticas, sino por motivos mucho más elementales: para organizar la experiencia en una especie de forma memorable permanentemente (Walter J. Ong, 1987, 73-4).

Agian, protagonista nagusia aukeratu, eta haren inguruan istorio osoa eratu duten hainbat pastoralek hemen dute bere azalpena. Heroikotasunaren inguruko irudia eratzen ari ziren, oroimenaren izaera finkatzen. Zeren ez baita ahaztu behar, egileak letratuak ziren artean, entzuleak ez zirela horrelakorik, eta hauen memoria da hazten eta

hezten zena pastoralen bidez. Hauen oroimena indartzea bilatzen zen eredugarriak ziren bizitza eta istorioen bidez.

3. Ondorioak

Ikusi ditugu zeintzuk diren ahozkotasanaren estiloaren ezaugarriak. Ez nuke orain errepikapen hutsa egin nahi, baizik eta arreta beste nunbaitetara bialdu. Beñat Oihartzabal izan zen pastoralaren estiloan tentsio bat zegoela ikusi zuen lehenengoetarikoa, eta tentsio horri atxiki dio pastoralaren estiloaren berezitasuna. Bere ustetan tentsio hori diskurtso mailan gertatzen den erregistro herrikoi eta handi-mandiaren artekoa zen.

Ezin uka bizkitartean estilo horrek grazia berezia duela gaur guretzat. Exotismo hori ez du hainbat euskalkiaren berezitasunak sortzen, baina gehiago erabili mintzairan agertzen den nahasketak: herrikoitasuna eta handi nahikeria, inozentzia eta harrokeria, eza-xolkeria eta pretentzioea.

Laborari xume horiek erregen ezpainetan eman behar zituzten hitzak ez zitezkeen egunerokoak izan, ez egiazko errege batenak ere: Gorte euskaldunik izan baldin bada sekula, haren oroitzapena aspaldi ahantzia zatekeen. Distantzia horretarik sortzen da parte handi batez hizkuntza bitxi, ber-denboran herrikoi eta arrotz hura (Beñat Oihartzabal, 1987, 86-7).

Konforme nengoke hipotesiaren zati batekin, pastoralen hizkuntzaren ñabartasuna tentsio batetik sortzen dela baieztatzen duen neurrian. Baina, tentsioaren aldeak, nik uste, beste hauek dira: ahozkotasanaren baldintza eta idazketaren baldintzen artean sortzen den tentsio-tik sortua ikusiko nuke pastoralen berezitasuna eta ez soilik, hizkuntzaren erregistro desberdinen erabilerak lor zezakeen bitxikeritik.

Bigarren atala:

Pastoralaren poetika eta estetika

Aho literaturak eskeintzen dituen baliabide eta idaztizko literaturak eskeintzen dituen baliabideen artean moldatzen ikusten dugun pastoralaren estiloaren beste atal berri bati jarraitzeko unea dugu. Hirugarren atal honetan bestelako da helburua. Lehenago, aho gogohigidurak aztertu baditugu, orain itzuli mitzuli borobila egin nahi genuke. Hasi, literatura kultuen baliabideak aztertuz eta aipatuz hasiko gara. Hurrengo atalean, pasterala antzerki bezala tratatuko dugu, eta ez dugu ahaztuko berezko dituela antzerkigintzaren errekurtsu

batzuetan ibili beharra. Horiek ere tratatuko ditugu, espazio zein denbora, zein diskurtsoaren erabilpena.

Baina borobila osatzeko ez genituzke kale gorrian utzi nahi pastoralaren *satankeriak*. Drama aldetik garrantzi handiko errekurtoa izanik, hemen tratatzeko gaia dela esango genuke, baina, beste alde, eta frogatuko dugunez, aho literaturaren tradizioan bat batean sartzen direnak dira, eta gainera, tratamendu berezia eskatzen dutenak. Horregatik egingo dugu borobila lana, espresabide kultoetan hasiz eta aho espresabideetan bukatuz.

1. Idatzizko literaturaren baliabideak

Egia da, formalki ere, pastoralak ez dituela baliabide kulto handiak erabiltzen. Handiegirik ez ugariegirik. Idatzizko literaturaren apaingarri eta edergarriak ez dira askotan agertuko pastoral baten diskurtsoan.

Ez xerka haietan [pastoraletan] asonantzia arraro aberatsik, ez xerka metafora edo imaia berezirik, ez xerka sendimenduak adieraz litzakeen deus orijinalik (Ohiartzabal, 1987, 87).

Esaten zigun arrazoi osoz Beñat Ohiartzabalek, eta Arene Garamendik gogoratzen zigun ezin zitekeela Pastoral literatura kultoaren moldeetan neurtu.

Ni los criterios valorativos ni los métodos aplicables a su estudio pueden ser los mismos que los usados con la literatura "cultura" (Garamendi, 1989, 541).

Eta hala da. Baina honek ez du esan nahi ez direnik bitxi urre preziatuak aurkitzen testuetan zehar. Oraingoan bitxietaz hitz egin nahi genuke. Hitz jario luze baten barnean aurkitzen diren irudi, imajina eta metaforez, diskurtso luzearen barne aurkitzen diren lore xortaz, eta arrosa usaindunez.

Ikuspegi hau aukeratu badugu, ez da izan ahaztu egin dugulako zein den pastoralaren kontestu orokorra. Gorago pastoral berriak irakurri ondoren heldu ginela pastoral klasikora. Eta pastoral berri, zein zaharretan aho literaturari dagokion ezaugarri bat aurkitzen genuen behin eta berriro, hitzaren oparoarena, aurrera egiten ez zuen diskurtsoa, *diskurtso ezprogresiboa*. Hainbat ahapaldi eta hainbat ahapalditan mezu berdina ematen zen ahapaldiaren lehendabiziko

hemistikioan, eta bigarreanean. Mezua behin eta berriro errepikatzen zen. Lehenago ikusi dugu aho literaturaren ezaugarri nagusia dela oparotasunarena. Errepikazioak ere zerikusi handia du aho kultura batekin. Hitz ugariketa deitu diogu honi lehenago batean. Hitzzen elipsi falta, azken batean. Mezua geldi egon eta diskurtsoa aurrera doanean deitzen zaio hitz jario bati ezprogresibo, aurrerapenik bakoa. Eta usu, holaxe da Pastoralaren estiloa. Egia esan, gaurko pastoralak motelagoak ikusten ditut klasikoak baino, ezprogresibotasunari atxikitua-goak... Aho literaturaren kontestuan bizi den espresabidea da, eta zenbaiten sermoi generoaren hurbilean bizi dena.

Ez da, ordea, bere funtzioa ulerkaitza, Beñat Oihartzabalek uste duenez:

Errepikatzeak eta erredondantziak oroz gainetik, ez beti ustega-bekoak, baina ardura nahitara ezarriak itxura denaz, ulergaitz ba-zaigu ere (Oihartzabal, 1987, 88).

Walter J, Ongek erakutsi digunez, aho kultura batean gogoratzen ez dena ez da, ez du izaerarik, eta gogoratzeko —gizarteak gogoratzeko, aktoreak gogora ekartzeko— beharrezkoak ditugu errepikazioak.

No sólo los poetas, sino todo el mundo intelectual oral o el mundo del pensamiento dependía de la constitución formularia del pensamiento. En una cultura oral, el conocimiento, una vez adquirido, tenía que repetirse constantemente, o se perdía: los patrones de pensamiento formularios y fijos eran esenciales para la sabiduría (Ong, 1987, 31-2).

Kontestu honetan hasiko ginatke hitz egiten, zeren, aipatu beharrezko ditugun lehendabiziko espresabideak aho literaturan zein idatzian aurkitu litezkeenak ditugu, erredondantziaren legea jarraitzen dutenak: paralelismoak eta errepikazioak. Aho kulturatik idatzira igarotzeko eurak ditugu ate eta sinplegade. Tarteetan dira, erresuma batek besterako bidearen margenetan.

1. Paralelismoak

Aipaturiko arrazoiarengatik pastoralaren estiloan sustraizkoa den espresabide baten aurrean gaudela esan dezakegu. Ez da orrialderik pastoraletan paralelismorik gabe, ugaritasuna harrigarria da. Behin eta berriro aurkitzen den espresabidea dugu. Era eta maila guztietan agertzen den espresabidea da. Lerro baten barnean ager daiteke,

zein ahapaldi oso batean, zein hiru lau ahapaldiren soka sortuz eta kiribilduz.

Adibideak eurrez aurki ditzakegu. Aipagarri batzuk baino ez ditugu hona ekarriko. Lehendabizi ahapaldiaren barne agertzen direnak.

Eztiçu mundian guiçonag
hain berthute aderriq
Ez personaq eztiçu
hain calitate charmantiq (Clovis).

Jinkouak deyziela egun houn
koumpagna agradabilia
Eta eman dezaziela
bere grazia santia (Berterretx).

Angles edo Beaumontes
ez naizie dudazten
ziren mehatxu horiek
ez naye ikharatzen (Berterretx).

Jaoun kountia hatchirik niz
ni ikhara batek hartzen
Hor eguin dugun kolpiaz
Hachirik nuzu dolutzen (Berterretx).

Nitaric hurrunt eçaçu
çoure justicia
nitan eçar eçaçu
çoure misericordia (Saint Alexis).

Eta ondoren ahapaldien soka osatzen dutenak.

Sira consala cite othoy
eta har eçaçu corage,
tristecia horiq oro
utcy behar dirade.

Corage cite sira othoy,
eztuçu behar loxatu,
balinaba horiq oro
arraiteriaq dutugu. (Edipa, 25 eta 28).

Bekhatuty livra gaitçaçu
Jauna, cuc plazer baduçu

Othoy çuq placer baduçu
coure cerbutchary eguiçu. (Edipa, 139 eta 141 eta 143).

Paralelismotik hurbil diren espresamoldeak dira errepikamenak eta hauek ere ugari xamar aurki ditzakegu pastoralaren orrietan zehar. Ez dugu hauetaz hitz luzerik egingo, azken batean, paralelismoa eta errepikamena ahaideak izanik, funtzioak ere berdin antzekoak dituzte eta.

2. Metafora

Ez dira ugariak, ezta ere orijinalitate handikoak. Gehienak muduaren ikuspegiarekin lotuak daude. M. Elena Barandiaran, Maite Erauskin eta Jose M. Urrestazuk, Euskal Filologiako ikasleek adierazten dutenez, *Clovis* pastoralaren barnean, metaforak sinbologia zehatza azpimarratzen du:

Sinbologia baten barruan hiru puntu azpimarratu beharko dira: a) *usoa*: Ezpirituairen irudia da. Jesusen bataioan agertu zen bezala, orain Clovisenean ere ikusiko da... b) *Lilia*: hiru lore direla esaten da, berriro Trinitatearen sinboloa... c) "*urka eracy/ hirour egounen burian*"... Jesusen heriotza eta berpiztearekin lotuta egongo da irudi hau (Barandiaran eta alii, 1989, XV).

Metafora xume hori ez da gehienetan soilik agertzen. Badu launtzailerik, adibidez konparaketa, metafora baino errazago aurkitzen eta erabiltzen, eta hiperbolea, exajerazioa.

Metafora batzuk XVIII. mendeko lirika gogoratzen dute, emakumearen aurpegia eguzkia edo izarrekin lotzen dutenean:

ene beguietaco arguia (Sain Alexis).

O frutu malerosa (Edipa, 19).

Konparaketetan agertzen da irudi mundu berdina, emakumearen edertasunarena, alegia

Eijer izaren pareko (Berterretx)

Aithor dicie princessa haren

Edertaçun pare gabia

Ekhia beçain eder dela

Haren beguithartia (Clovis).

Baina ez dira falta, *Saint Alexis* pastorealean exotismoaren adibiderik ere.

ene furia handiago da
ecies tigre arraviatiarena
ene bessoua borthixago
ecies eta samsourena (Saint Alexis).

Cien erretceco nis eguiten
tigrebat bano crudelago
ene bihotca guertatcenda
harria beno gogorrigo (Saint Alexis).

Metafora-konparaketa espresabidearen ezaugarriak aipagarriena herri generoekin duen atxikimendua liteke. Lirika hain hurbil izaki, honen baliapideak erabiltzen ditu lirikotasuna bilatu behar duenean.

3. Aposizioa

Hitz ugariketa dela-eta, aposizioa ugaria izaten da pastoraletan. Espresabide honen agerpenaren arrazoiak aho literaturan aurkitu behar badira ere, ezin uka erabilpenak giro kultoa ematen diola pastoralari. Aho literaturan egiten den erabilpenari buruz, berriro joko dugu Walter J. Ong-en azalpenetara:

En los poemas homéricos el poeta contaba con epítetos y verbos para Odiseo, Héctor, Atenea, Apolo y los otros personajes, que se ajustaban exactamente en el metro cuando por ejemplo, había que presentar a cualquiera de ellos diciendo algo... Odiseo es *polymetis* (astuto) no sólo por ser este tipo de personaje, sino también porque sin el epíteto *polymetis* no sería posible integrarlo fácilmente en el metro (Ong, 1987,63).

Halaz ere, literatura kultoan, batez ere klasikoan, ziur asko ahozotasuna hurbil zutelako oraindik asko erabiltzen den espresamoldea dugu. Pastoralek ere aposizioaren erabilpen handia egiten dute, pertsoaniak itzal berezi batez jantzi nahi balitu bezala.

Aguer ady Sigebert
Guiçon corage gabia (Clovis).
Bake eta victoria,
Thebasseko hiria,
çu ere bai, Laya
ororen gobernaçalia (Edipa, 1).

Jainkoaren irudia handitzeko ere erabiltzen den modua dugu hau:

Oh salvaçale justoua,
mundiaren creaçalia,
becatiaq pharcaturiq
emadatçu celia (Edipa, 404).

4. Hiperbolea

Duda gabe, gehien erabiltzen den espresabidea pastoralaren poetikan. Ziur asko entzuleen irudimena zauritzeko balio duen figura da hiperbolearena. Mugak, sorpresa eta bildurra, handituz, jendea harritzeko erabiltzen dena. Hiperboleak entzulegoaren irudimena pizten du, eta beste alde, zuzentasun garbia agertzen du. Ximplea da, ulerkorra, ez du oztoporik jartzen ulertzeko. Lehenago ere ikusi ditugu batzuk, konparaketaz aritu izan garenean, oraingoan adibide gehiago eskeiniko ditugu.

Ikusiko dugunez, adibiderik gehienek badute zerikusirik aho estetikaren batekin, XVIII. mendeko lirikaren ohiartzuna diruditela. Hor nola, idatzizko testuetan lerratzen den hala edo hola, aho literatura. Juan Mari Lekuonak erakusten duenez:

Estilo bat markatzen da, kontsumoko idazkietan oinarritua, baina, aldi berean, tradiziozko legeetara lerratu ezezik, usariozko literatur bitxi preziatuenak tartekatzen duena (Lekuona, 1989, 32).

Horrela aurkituko ditugu:

Ez du parerik ejerez (Berterretx).

Etchalte bat Chiberoun
segur pare gabia (Berterretx).

Badeya haren xangrien pare? (Edipa, 48).

Çoumbat ere çoure phenac
beitira incomparable (Edipa, 78).

Hiperbole eta metafora (edo konparaketa) herrikoiairen arteko nahasketak ere badira gure pastoraletan.

Aithor dicie princessa haren
Edertarçun pare gabia
Ekhia beçain eder dela
Haren beguitartia (Clovis).

Egoundano eziti ikhoussy
hain princessa ederriq

ezpirituz aldiz eztiçu
mundian bere pareriq (Clovis).
Franciari bouquet ederragoriq
ecin eratchequiten çunuque (Clovis).

Baina badira XVIII. mendeko lirikatik hartzen den beste topikorik ere, beti hiperboleari begira gaudela, "Hiltzearen" topikoa ere nahiko usu erabiliz:

Adio ene bihoceco objet
gracia hounes bethia
coureganic parthicia
uduricen citadacu hilcia (Saint Alexis).

Inoiz hiperbolea, beste usadiozko espresaera batekin nahasten da, "X, X eta Y" izenaz ezagutzen den formularekin.

ezta guien devruriq
es eta kiristiriq
ene furiari buru
emanen dian guiçouniq (Saint Alexis).

Elkarkidetza honek hiperbolearen jatorri herrikoia eta tradizionala frogatuko luke. Beste batzuk, ordea, eta silogismoaren kutsua hartzen badute ere, ezin dute ezkutatu bere iturri tradizionala:

Jauna enikeçu nik aski
mila Mihi banu ere
çoure hountarçun handiaren
erremestiatceco hebe (Sain Alexis).

Lan egiteko modu honek beste bide batzuk, hain zuzen idazketa munduaren bideak, zabaltzen dizkigu.

5. *Silojismoak, hitz jokueak*

Silojismoek, eta hitz jokuek, abstrakzio munduari hurbilketa suposatzen dute. Jakina da, eta erakutsi dugu "zehatza eta ez abstraktua" deituriko ahozko gogo-higidura sailean, ahozkotasan hutsean bizi denak ez duela silogismoa ulertzen, ez duela silogismoaren lege sistema onartzen, ez dela gai zehaztasunetik abstrakzio mundu formulatu batera igarotzeko. Honela frogatu zuten, behintzat, Walter J. Ongen eta Goodyren lanek.

Adibide xelebreak eskeintzen ditu Walter J. Ong-ek arazo hau dela-eta. Ahozkotasunean hitza eta esperientzia hain lotuta doazenez, hitzunari ez zaio posible hitza objetibizatzerik, eta nolabait esateko, diskurtsotik kanpo ateratzea. Ez zaio posible hitza eta hitzak sortzen duen mundua, esperientzia mundua zein hitz-jarioaren jardunaren batasuna, bereiztea. Hitza ez da jolas abstrakto bihurtzen. Eta honetan, ez du balio aliterazioaren adibidea aipatzea, beste zerbait da aliterazioa, abstrakzio munduarekin baino gehiago sentsazio munduarekin, musikarekin lotuta agertzen delako. Eta horrela, aliterazioaren funtzioa ez da hutsala, ez da hitzen arteko jokoa, beste zerbaitetan dago bere funtzioa, oroimenaren lagungarri izatean, hain zuzen. Ez da hutsala, badu baliorik.

Pastoraletan, ordea, posible zaigu silogismo eta hitz jokoren bat aipatzea. Ez dira ugariak, baina nahikoa dira idatzizko munduaren barnean aurkitzen garela ziurtatzeko. Irakur ditzagun bertsook:

Baduçu anitz persona
 Khorpitcer eder direniq
 Bena entretenimentia
 Ecinago char dieniq
 Baduçu entretenimentia ederriq
 Eta charmantiq ecinago
 Bena erho eta arhin beitira
 Eta conduta gaisto
 Bena Aurelian Clotilda
 eztuçu ez halaco (Clovis).

Kontrajarpen bikoitz horrek, silogismoaren formulazio hutsean eginda ez badago ere, nahiko garbi adierazten du ahozkotasunetik urruntzen hasiak garela, idatzizko pentsamoldeek arazo abstraktoetarako erakusten duten bitxikeria hasia dugula testu hauetan.

Hitz jokoetatik hurbilago, baina hala ere, maila abstraktu batean mogitzen da hurrengo adibidea:

Oray ala guero hil
 oro bat duq deusero
 eta hor egoitez eztuq
 profeitaturiq batere (Clovis).

6. Izenlagunen agerpena

Pastoralen poetikotasunaren azken aipamen bat egitearren, izenlagunen sistemaz hitz egin nahi genuke. Izenlagunaren erabileraren

kontuetan hiru arlo nagusi bereiz ditzakegu. Batetik badira herri literaturatik harturiko izenlagunak, "Eder" edo "maitagarri" edo "Beguitarte ezia" bezalakoak, entzulegoaren ohiturekin lotura lortzeko erabiltzen direnak, zeren izenlagun hauek hiztunaren lehendabiziko urteetan azaldu eta erregistrorik arruntenetan agertzen baitira. Bestetik, gorago ikusi dugunez, entzuleek pertsonaiaren identifikazioa errazago lor dezaten sartzen dena:

Nour othe da mintçaçalle
arrogant handy hory (Edipa, 266).

Hirugarrenez, eta batez ere "corpus" honetako lanik klasikoenean eta, nolabait deitzeko, kanpo eragin handiena duenean, *Edipan*, badira adjetibizazio deskriptibo zein konnotatibo nahiko aberatsak. Hona hemen adibide batzuk:

Ala hiri brillantia
eta tronu admiragarria (Edipa, 7)
Oh estremitate orriblia
eta gaiça lotxagarria (Edipa, 222).

Inoiz, nahiz eta izenlagunak arruntak izan, eurekin joko paralelistiko estimagarriak egiten ditu egileak. Gorago aipatu ditugun bi distribuzio honetan aurkezten ditu:

çoun dofy beitate
eder eta maitagarri
bena haren azcioniaq dirate
icy eta loxagarri (Edipa, 37)

Egile honen maisutasuna beste toki askotan aurki dezakegu, hala ere hainbat hitz erakarrik (orriblia) ez ote du salatzen egileak begien aurrean zuela orijinala?

7. *Zenbait pasarte aipagarri*

Errepassu honekin bukatzeko, pastoral aztertzaileen artean izan den eztabaidaren aipuarekin bukatu nahi nuke. Jakina da aztertzaileen artean iritzi kontrajarri bi izan direla beti. Batzuk, gehienak, pastoralaren balio literarioa urri eta eskasa zela defendatzen zutenak, Urkixo eta Inchauspe tartean direlarik, eta besteak, Aresti eta Lafitte, pastoralaren defentsa egiten zutenak.

Beñat Ohiartzabal, adibidez, bien artean kokatzen da. Onartzen du "literatura denaz bezainbatean, ez da pastoral zaharretan obra balios handirik" (Oihartzabal, 1987, 54), nahiz eta iritzi hau matizazioz beterik den pasarte batean ematen duen. Ni ere ez nintzateke berak agerturiko pentsamolde horretatik urrunegi. Halaz ere, lau testu haue-
tan bada pasarte aipagarriak, eta noizbait literatura eder baten ager-
penik. Bakarrizketa moldean eraturiko bi pasarte aipatu nahi nituzke,
Edipa pastoraletik hartuak.

Pasarteotara hurbiltzeko modu bakarra, saio honen kontestuan eta saioa doan eran, inpresionismoa da. Azalpen xumea testuaren kontestuari buruz.

Lehendabizikoa, Jocastari dagokio. Gauaz amets egin du, eta amets guztiek duten sorginkerian sinesturik, Layari zuzentzen zaio, azalpen eske. Ediporen istorioa azaltzen digu, labur eta jakingai. Ametsaren ezondo, ezuste, aire misteriosu guztiak azaltzen dira diskurtso ia autonomo batean. Ametsaren izaera kontatuz hasten da:

Madama, igaran gayan
amex bat eguin dut

Eta bat-batean agertzen da amets horren izaera gogorra:

ez peitu significatcen
gouretaco deus ere hounic.

Hurrengo dator Ediporen istorioa. Metaforaz eta hiperbolez osatu-
riko testu bat da. Baina, gainera, zer esanik dagoenez, progresio
xume bezain indartsua lortzen du egileak pasartean. Paralelismoetan
oinarrituz dramaren bihotza kontatzen digu:

Desiratcen guiticie
egun malur handiec
ceren eta ezpeitie
pareric goure crimec

Ginco eguiazcoua segurky
egun goure countre duçu
ceren ene bekhatiec
beitie hanitz causatu.

Punicione handi batez
gazitigatu guirate
ceren goure merechiac
hartaco beitirade (*Edipa*, 16-18).

Paralelismo eta progresioaren arteko jokuak, sinonimia orekatuak eta esan moduaren meharrik ematen diote testuari bere indarra.

Esamolde estua, lirismo etsipenduari biltzeko dugu Edipak egin duen krimenaren aurrean bere burua hiltzeko erabakia hartzen duenean. Pasarte honetan, lirikotasuna lortzeko, gizaizaeraren barne samina adierazteko, antzeko espresabideak gehi kontrastea erabiltzen dira. Bere izaera publiko, gizonak egin duen pekatua, eta bere izaera pribatuaren arteko, berak sentitzen duenaren arteko kontraste ongi moldatu bat. Edipak bere burua egin duenaren aurrean jartzen du, aita hil du, amarekin ezkondu da:

Munduco eskandalen
buruçaguia naiz ny,
eztut merechy jagoity
Celia deçadan ikhous nic.

Nitan gaigna eror bite
bortu guciac oro
eztut oray erregue
nic içan behar haboro (Edipa, 369-370).

la maila kosmogonikoan jarri du bere burua. Orduan erabakitzen du bere burua hiltzea:

Abisec ceitaden
sententcia phaussatu
bortu horren gaignian
behar niala urkhatu (Edipa, 372).

Erabakia hartu ondoren, berriro itzultzen da ikuspegi subjektibo batetara. Paralelismoan oinarrituriko hiru adio bialtzen dizkie maitatu gauzei:

Adio egun charmanta
bai etaere arguia,
eztut haboro secula
ikhoussiren nic ekhia.

Ene begui ederrac
oray jaouan dirate,
jaureguy eta rampartac
adio oray cier ere.

Oray jouan dirateke
ene coumpaigna guciac,

adio othian ene ama,
ene emazte maitia (Edipa, 374-376).

Duda gabe, lirikarekin moldaturiko dramatismoak ematen dio parteari duen indarra eta duen gozamen sustraia. Agian, espresabide jokoan gainetik, testu hauetan dagoena mezuaren indarra da. Badago zerbait esateko, zerbait dramatiko eta zerbait tragiko. Baina, guzti horri pertsonaiaren mami eta hezurra eskeintzen zaio. Ez dira orain pertsonaiak hango "kartoizko pertsonaiak", badute arima, badute sentipena, eta guztiaren gainetik, badute konfliktua, badute kinka.